

MULTIPLO KOMUNETAKO TXIKIENA

Bi zenbakiren edo gehiagoren **multiplo komunetako txikiena** 0 ez den zenbakion multiplo komunen arteko txikiena da.

3ren eta 4 ren
multiploak
atera.



Zein da 3 eta 4
zenbakien m.k.t.?



3ren multiploak = 0, 3, 6, 9, 12, 15, 18, 21, 24, 27, 30, 33, 36...

1. PAUSOA

4ren multiploak = 0, 4, 8, 12, 16, 20, 24, 28, 32, 36, 40, 44...

3ren multiploak = 0, 3, 6, 9, **12**, 15, 18, 21, **24**, 27, 30, 33, **36**...

4ren multiploak = 0, 4, 8, **12**, 16, 20, **24**, 28, 32, **36**, 40, 44...

Errepikatzen
direnak biribiltzen
ditugu..



2. PAUSOA

Errepikatzen
direnen artean,
txikiena aukeratu



3. PAUSOA

12, 24 eta 36... errepikatu dira. Horietatik txikiena **12** da (Kontuz!! 0 ez dena hartuko da).



m.k.t. (3, 4) = 12



1) Kalkulatu hurrengo m.k.t.:



m.k.t. (5 eta 7) =

5en multiploak =

7ren multiploak =

m.k.t. (4 eta 6) =

4ren multiploak =

6ren multiploak =

m.k.t. (3, 5 eta 10) =

3ren multiploak =

5en multiploak =

10en multiploak =

m.k.t. (6, 8 eta 16) =

6ren multiploak =

8ren multiploak =

16ren multiploak =



2) Idatzi hurrengo m.k.t.-etako emaitzak:

m.k.t. (2 eta 3) =

m.k.t. (4 eta 5) =

m.k.t. (5 eta 7) =

m.k.t. (4 eta 7) =

m.k.t. (5 eta 8) =

m.k.t. (3 eta 13) =

m.k.t. (4, 6 eta 8) =

m.k.t. (4, 8 eta 10) =

m.k.t. (4, 6 eta 16) =

m.k.t. (3, 6 eta 15) =

m.k.t. (12, 16 eta 24) =

m.k.t. (3, 8 eta 9) =



3) Harryk Hedwigen gutun bat jasotzen du 4 egunean behin, eta Dobbyren gutun bat jasotzen du 6 egunean behin. Gaur jaso du Hewgiden eta Dobbyren gutuna. Noiz egokituko zaizu berriro bion gutunak aldi berean jasotzea?



Erantzuna: egun barru.



4) Draco Malfoy eta Harry Quidditch zelaira bueltaka dabilta. Harry, bere 2000ko nimbus erratzari esker 60 segundo behar ditu bira bat egiteko. Draco Malfoyk 90 segundo behar ditu bira bat egiteko. Biak batera hasi dira. Zenbat buelta emango ditu bakoitzak berriz irteeran izan arte?

Harryk: buelta emango ditu.

Dracok: buelta emango ditu.

